

2025.URTERAKO KULTUR PROGRAMA EDO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. Helburua.

Deialdi honen helburua da entitateei kultur sustapen eta zabalkunde arloan urteko programak edo jarduera zehatzak garatzeko eta egiteko lehiaketa erregimenaren bidezko dirulaguntzak emateko modua arautzea. Hernaniko Udaleko Kultura sailari dagokio dirulaguntzak kudeatzea.

Oinarri hauek udalak indarrean duen Dirulaguntzak emateko Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

2. Aurrekontua eta programak.

Deialdi honen helburuak lortzeko 86.100 euroko diru kopurua dago Hernaniko Udaleko 2025 urterako aurrekontuaren partida honetan: 1910.481.01.334.00 2025 "Dirulaguntzak: Kultura (Norgehiagoka)".

3. Onuradunak.

Dirulaguntza hauek deialdi honetan zehaztutako arloetan kultur ekintzak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate juridiko pribatuak jaso ahal izango dituzte, betiere Hernanin helbide soziala izanez gero.

Salbuespen gisa, zehazten den kasuetan eta Kultura delegatuaren proposamenez, Hernanitik kanpo kokatutako entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere, beren jardueren zati nabarmen bat udalerriaren barruan garatzen bada edo udalerriarentzat interesgarritzat jotzen bada.

Entitateek indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egon beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Orokorrean izena emanda.

Ondorio honetarako, irabazi-asmorik gabeko entitatetzat joko dira elkartearen helburuekin bat datozen ekintzak egin eta irabaziak elkartearen helburuetarako erabiltzen dituztenak.

Salbuespen bezala, pertsona eta talde ez erregistratuak ere dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute. Aldez aurretik proposamena justifikatuko da eta Tokiko Batzordean erabaki.

4. Bazterketak.

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

a) Dirulaguntzetarako Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

b) Direnagatik edo duten helburuagatik Kultura sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak.

c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Dirulaguntza eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria entregatzeko dituzten jarduerak edo programak.

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeek edo pertsonen eskabideak.

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea. Hortaz, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeek sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, dirulaguntza berdintasun legedia betzearen arabera baldintzatuta geratuko da. Beraz, elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa duela ziurtatu beharko du IV. Eranskina sinatuz.

g) Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan kultur arloarekin.

h) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira edozein erlijioaren barruan egiten diren ohiko jarduerak edo erlijio gertakariekin zerikusia duten jarduerak.

5. Eskabideak.

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskaerak Hernaniko Udaleko zerbitzu telematikoen bidez egingo dira:

- Erregistroko helbide honetan Elkartearen izenean erregistratuz:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do>

Bide horretatik ezin bada:

- **Aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan**, udaletxeko beheko solairuan
Astelehenetik ostiralera: **08:00 – 13:30** (astearte eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere)

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- ☐ Dirulaguntza eskabide normalizatua, betea eta bertan dauden aitorten guztiak sinatuta.
- ☐ Bestelako erakunde, organismo eta abarri dirulaguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten dirulaguntzen aitortpena.
- ☐ Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (2024. urtekoa). Aurreko urteetan dirulaguntza jaso duten elkarteek Eusko Jaurlaritzan izena emanda jarraitzen dutenaren aitortpena.
- ☐ Udal Intereserako Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria.
- ☐ Eskatzaileak kontu korrontearen zenbakia eta kontuaren jabe dela erakusten duen aitortpena.

- ☐ Zerga bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitorpena (I. Eranskina).
- ☐ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legearen inguruko aitorpena (II. Eranskina).
- ☐ Dirulaguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena, baloratu jarduera bakoitza taulan agertzen diren irizpideen baitan (III. Eranskina).
- ☐ Gastu eta sarreraren aurrekontu orekatua (IV. Eranskina).
- ☐ Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (I.F.K).
- ☐ Lehenengo aldiz dirulaguntza eskatzen badu, erakundearen estatutuak eta curriculumak: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentatuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

6. Epeak.

Eskaerak aurkezteko epe bakarra izango da. Epea hogeita hamar egunekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetatik kontatzen hasita.

Ezarritako epeak nahitaez beteko dira, eta ez da salbuespenik izango.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 laneguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

7. Diruz lagunduko diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak honako hauek dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: jarduera kulturalak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, kultur erakundeek prestatutako jaialdiak, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, baita musika edo liburu argitalpen, ikus-entzunezko, liburutegi eta abarrekin zerikusia dutenak ere (betiere, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31.art., Dirulaguntzen Lege Orokorrak, xedatzen duenarekin bat etorritik gero, hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duen jarduera sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia badute.)

8. Eskabideak ebaluatzeko irizpideak.

Aurkeztutako eskabideak Kulturako sailak tramitatuko ditu, bai eta aztertu eta ebaluatu ere.

Gutxienez aurrekontuaren %50 ziurtatuko zaie dirulaguntza eskatzen duten elkarteei/pertsonei (*) eta ehuneko hau %65era arte igo daiteke (argitalpenak salbu), honako irizpide hauen arabera puntuazioari esker:

- a) Herriko gainerako elkarteekin elkarlanean egindako ekintzak. (8 puntu).

- b) Ekintza Hernanin egitea. (8 puntu).
- c) Ekintza horrek erdiguneaz gain auzoetan eragina izatea (8 puntu).
- d) Egitarauen berrikuntzak eta egitarau berriak txertatzea. (8 puntu).
- e) Proposatutako jardueretan kanpoko jatorria dutenen parte-hartzea bultzatzeko bideak martxan jartzea (8 puntu).
- f) Proposatutako jarduerak euskaraz garatzea. (5 puntu).
- g) Berdintasunezko balioak sustatzea: sexu rola eta estereotipoak hausten laguntzen dituzten ekimenak; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen duten ekimenak eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentsibilizazio edo prebentzio ekimenak izatea (5 puntu).

(*) Betiere “Kultur ekintzetarako dirulaguntzak” partidan dagoen diru kopuruak hori ahalbideratzen badu.

Kultura teknikariak balorazio txostena egin eta Herritarrentzako Zerbitzuak batzordeak eskaerak aztertu ondoren, kontzesio diktamena egingo da, ondoren onartua izateko. Bertan honako hauek jasoko dira: proposatutako eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa, eta emateko jarraitu den ebaluazio irizpidea.

Emango den dirulaguntza ez da inola ere baimendutako gastua baino handiagoa izango.

Lehiaketaren erregimenaren bidez emango dira dirulaguntzak eta, hortaz —betiere, kasuan kasurako jarritako irizpideen arabera— laguntza jakin batzuk besterik ez dira emango, diruz lagunduko diren jarduerak kalitatekoak eta bideragarriak izatea bermatzeko.

Baldin eta aparteko elkarte edo proiekturik aurkezten bada; hots, beste inork ez bezalako eskaintza egiten duena, programa hori gauzatzeko adinako dirulaguntza ematea izango da irizpide nagusia, betiere aurrekontuak horretarako aukera ematen badu (jarduerarentzat aurreikusitako defizita kontuan hartuta eta, kasua balitz, aurreko urteetan jarduera horri emandako dirulaguntza aintzat izanda.)

Ekintzak edo kultur egitarau berriak proposatzen dituzten eskaerek, gehienez ere, bost mila euroko (5.000 euro) dirulaguntza jaso ahal izango dute.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Erabakia hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Herritarrentzako Zerbitzuak batzordeak bere irizpena emango du.

Eskatzaileak ebazpenaren berri jasoko du eta arrazoitua betiere. Jasotzekoak diren kasuetan honako hauek zehaztuko dira: dirulaguntzaren kopurua, ordainketa modua, zuritzeko modua eta oinarri hauetan zehazten diren beste hainbat baldintza eta betebeharrak.

Ordainketa:

Dirulaguntzaren %80 dirulaguntza ematea onartzen denean eta gainerako %20 agiri hauek aurkeztu ondoren (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuek):

- a) Dirulaguntza eskabide normalizatua, honekin batera doan ereduaren arabera.
- b) Diruz lagundu den programaren edo jardueren balorazioa eta memoria xehatua (**I. eranskina**).
- c) Sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. (**II. eranskina**)
- d) Fakturen zerrenda excel formatuan. (**III. eranskina**)
- e) Egindako gastuen agiriak zerrendan jaso den hurrenkera mantenduz eta agiri bakoitzari dagokion zenbakia jarriaz. Fakturak edota baliokideak. **“Gastu-oharrak/tiketak” ez dira onartuko.** Dieta edo gastu konpensazio moduan egiten diren ordainketa guztiak transferentzia bidez, gehienez 200 eurokoak (transferentzia egin izanaren agiria aurkeztu); eskudirutan salbuespena, eta inoiz ez 100 eurotik gorakoak. Fakturak gutxienez honako datu hauek jaso beharko dituzte:
 - Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN)
 - Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa.
 - Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
 - Zerbitzua egin zeneko eguna.
 - Kopurua guztira.
- f) Kultur elkarteak bete beharreko hizkuntza irizpideen betetze maila adierazten duen agiria (**IV. eranskina**) eta dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

Justifikazioa:

- a) Elkarte edo pertsonak aurkeztutako aurrekontuaren %80 justifikatu beharko dute.

Dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Lehiaketetarako eta txapelketetarako sariak: gehienez 300€.
- Gehienez 200 euro onartuko dira “funtzionamendurako gastuak” kontzeptuan sartzea.
 - 1. Elkarteko kideentzat egiten diren ekintza gastronomikoak (bazkariak, hamaiketakoak...) “funtzionamendurako gastuak” kontzeptuan sartuko dira.
 - 2. Gabonetako saskiak saritzat hartzea “funtzionamendurako gastuak” kontzeptuan sartuko dira.
- Errifak eta loteriak ez dira kontuan hartuko, ezta eskelak ere edo beste elkarteetan bazkidetzak ere.
- Txosnak ez dira kontuan hartuko.

Dokumentazioa aurkezteko epea:

Jarduera egin eta hurrengo hiru hilabeteen barruan eta, gehienez ere, dirulaguntza eman den hurrengo ekitaldiaren urtarrilaren 20a baino lehen (2026ko urtarrilaren 20ean)

Behin elkarteek/pertsonak gastuen zuriaketak aurkeztu eta hiru hilabeteko epea izango du Udalak gastu zuriaketa horiek ebazteko.

10. Onuradunaren betebeharrak.

- Ez onartzea, diruz lagundutako jarduera egingo den inguruan, publizitatean edo dirulaguntza jaso duten pertsona edo entitateek ekintza egiterakoan honelakoak ager daitezela: dirulaguntza ematen duen delegazioari dagozkion jarduera esparrutik kanpoko lema, adierazpen, pankarta, ekintza eta abar.

- Diruz lagunduko diren jarduerak Hernaniko Udalak indarrean dituen euskara eta berdintasun irizpideak betetzea.

Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a.- Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean (ikastaroak, antzezlanak, ipuin kontaketak, pailazoak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b.- Jarduera herritar orori zuzendua denean, euskaraz egitea baloratuko da.

c.- Nolanahi ere, kasu guztietan betebeharra izango da:

Idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izatea. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.*

Ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena, megafonia..) euskaraz izatea.

Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d.- Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

* Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz (egitarauetan, adibidez, *txokolatada*)

- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez.

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.

- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.

- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

11. Publizitatea.

Diruz lagundutako jarduerari publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

12. Ebazpen-epea eta berri ematea.

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso ala ez.

Emandako dirulaguntzaren berri Udaleko iragarki taulan emango da eta ebazpenaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean. Nahikoa izango da Udaleko iragarki taulan jartzea, emandako dirulaguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Eskatutako dirulaguntza ematearen aldeko edo kontrako berariazko ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Ebazpen horren kontra Administrazioarekiko Auzi errekurtsioa jar daiteke, Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko apean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzi errekurtsioa jarri aurretik, Berraztertze Errekurtsioa jar dakioko ebazpena eman zuen organoari.

13. Ez betetzea.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoaren eskariz, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirua itzuli behar duten elkarrekin itzulketako dirua eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dituzte.

14. Klausula osagarriak

Baldin eta erakunderen batek, oinarri hauek onartu aurretik, 2024. urterako jarduera-proposamena aurkeztu eta dirulaguntza jasotzeko eskaria bete badu, ez du deialdi honetarako berriro ere eskaririk aurkeztu beharko; ez bada, behintzat, oinarri hauetako 5. artikuluan adierazitako dokumenturen bat aurkeztu behar duela.

Dirulaguntzak jasoko dituzten jarduera batzuek, ezaugarrien arabera, ikuskizun publikoen araudia eta horrekin lotutako segurtasun-arloko bestelako araudia bete beharko dute.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

15. Berrikusketak

Araudia urtero berrikusiko da.